



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

91. INFORMAZIO BULETINA

2014ko Uztaila-Abuztua



GIPUZKOA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2014ko Uztaila-Abuztua

NABARMENDU BEHARREKOA

> Euskadiko EGEF Programa Operatiboaren 2014-2020 aldirako proposamena bidali eta jendaurrean jarri da

Eusko Jaurlaritzak bere webgunearen bidez argitaratu du 2014-2020 aldirako EAEko EGEF Programa Operatiboaren proposamena, herritarren iritzia eta oharrak jasotzeko.

Proposatutako Programa Operatiboa Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak egin du hiru foru-aldundiekin batera eta Estatuaren Administrazio Orokorrarekin eta Batzordearen zerbitzuekin nahiz EAErekin lotura duten eragileekin eta solaskideekin koordinatuta.

Eusko Jaurlaritzak Programa Operatiboaren proposamena jendaurrean jartzeaz gain, Estatuaren Administrazio Orokorrari ere igorri dio proposamena, hark Europako Batzordeari bidal diezaion. Iritzi publikoaren eskutik jasotako iritzia eta oharrak kontuan hartuko ditugu Europako Batzordearen Eskualde eta Hiri Politikako Zuzendaritza Nagusiarekin izango dugun negoziazio-prozesu formalean.

Euskadiko 2014-2020 aldirako EGEF programa eragilea dokumentuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan esku hartzeko estrategia eta helburu tematikoak zehazten dira, 2014-2020 programazio-aldi berrirako, Eskualdeen Europako Funtsaz (EGEF) kofinantzatutako jardueri dagokienez, bai eta helburu horientzat programatutako finantza-zuzkidurak ere.

Erkidegoak EAEn esku hartzeko, 2014-2020 programazio-aldian, dauden behar nagusiak zehaztu dira, Europako Esparru Estrategiko Bateratuari dagozkion funtsak kudeatzeko Euskadiko Esparru Estrategikoan egindako egoeraren gaineko diagnostikotik abiatuta, eta Europa 2020 Estrategiaren helburuak zein Kohesio Politikoaren esku-hartze helburu tematikoak oinarri hartuta, betiere.

Euskadiko 2014-2020 aldirako EGEF Programa Eragileak erregelamenduan aurreikusitako hamaika helburu tematikoetatik (HT) seitan pilatzen ditu esku-hartzeak funtsean, eta zehazki, hazkunde adimentsua lortzeko lauetan (1. HT: I+G+B, 2. HT: IKTak, 3. HT: ETEak, eta 4. HT: karbono-isuri baxuko ekonomia). Esku-hartze osagarriak daude, halaber, 5. HTn (arriskuen prebentzioa eta kudeaketa) eta 6. HTn (ingurumena eta baliabideen eraginkortasuna) hazkunde jasangarria lortzearren.

Informazio gehiago:

http://www.ogasan.ejgv.euskadi.net/r51-19239/eu/contenidos/informacion/politica_regional/eu_2340/egef_2014_2020.html



> Euskadiko 2014-2020 aldirako EGIF Programa Operatiboaren proposamena Europako Batzordeari bidali dute

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua dira EAEn Europako Gizarte Funtsaren (EGIF) erakunde arduradunak eta Estatuaren Administrazio Orokorrari bidali diote 2014-2020 aldirako EAEn Europako Gizarte Funtsaren Programa Operatiboaren proposamena.

2014-2020 aldirako EAEko EGIF Programa Operatiboaren estrategia eskualdeko beharrak eta erronkak aintzat hartuta prestatu da. Behar eta erronka horiek EGIF aplikatzeko lehentasunak finkatzeko ex profeso eginiko testuinguruaren analisisian zehazten ditu.

Hona hemen Programa Operatiboaren helburu nagusiak:

- Lan-merkatuan parte hartzea handitzea talde ahulenei arreta berezia eskainiz eta enpleguaren kalitatea hobetzea.
- Prestakuntzan eta lan-merkatuko beharretara egokitzeko lanetan parte hartzea handitzea, batez ere lanik ez dutenen artean.
- Enpresa txikien eta ertainen enpresa-espirtua eta lehiakortasuna sustatzea, batez ere enpresa sortu berriena eta gizarte-ekonomiako enpresena.
- Gizarteratze aktiboa, aukera-berdintasuna eta bazterkeriarik eza sustatzea.

2014-2020 aldirako proposatutako EAEko EGIF Programa Operatiboaren finantza-esleipena 54.119.021 eurokoa da EGIF laguntzetan eta guztira 107.571.375 euroko inbertsioa dakar.

Informazio gehiago:

http://www.lanbide.net/plsql/eu_fondo?idioma=E



> POCTEFA: 2014-2020 Programa Operatiboaren Aurreproiektua

Pirinioetako Lan Komunitateak (PLK) web-atarian argitaratu du 2014-2020 aldirako POCTEFAren, Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzako Programa Operatiboaren, zirriborroa.

Programa Operatiboaren aurreproiektua kontsulta publikorako eskuragarri dago eta haren oinarriko elementuak jasotzen ditu: estrategia, helburu tematikoak, inbertsioko lehentasunak, aurrekontua... Horiek guztiak izango dira Frantziako, Espainiako eta Andorrako mugaz gaindiko lankidetzaren oinarriak hurrengo urteotarako gizarte, ekonomia eta lurralde arloko Europako Kohesio Politikaren barruan.

Bestalde, 2014-2020 Programaren Ingurumeneko Ikerketa Estrategikoa eta Ingurumen Agintaritzak igorritako Irismen Dokumentua ere eskuragarri daude.

Informazio gehiago:

<http://www.aquitaine-euskadi.eu/>

> Europar Batasunaren testuinguruan Euskadiri buruzko estatistikak eguneratzea

Eustatek orain gutxi eguneratu ditu Europako Batasunaren testuinguruan, hura osatzen duten 28 herrialdeen artean (UE-28) Euskadiko Autonomia Erkidegoaren egoeraren ikuspegia jasotzen duen argitalpen estatistikoa. Egindako eguneratzearen emaitza nagusiak honako hauek dira:

- **I+G:** BPGren gaineko I+G gastua Euskadin azken 10 urteotan EB-28ko herrialdeen batez bestekoa baino erritmo bizkorragoan hazi da, 2003an BPGren % 1,42 izatetik 2012an % 2,12 izatera pasatu da. Euskadiko Autonomia Erkidegoaren I+G gastua BPGrekiko 2012an EB-28ko herrialdeen batez besteko mailaren gainetik dago (% 2,07), eta Espainiakoarekiko % 1,30. Euskadi EB-28ko batez bestekoa baino hiru aldiz erritmo bizkorragoan hazi da, eta ia hirukoiztu egin du Espainiako ere.
- **Demografia:** Euskadiko emakumeen bizi-itxaropena 85,4 urtetan dago, EB-28ko altuenetakoa da. Dena den, Euskadiko jaiotze-tasa eremu horretako herrialdeen batez bestekotik oso behera dago. 1.000 biztanleko 9,3 jaiotza erregistratzen dira, aldiz, EB-28n 10,4 jaiotza izaten dira.
- **Prestakuntza:** 30 eta 34 urte arteko Euskadiko herritarren % 44,1ek goi mailako prestakuntza du. Ehuneko horrek EB-28ko herrialdeetako % 36,8ko batez bestekoa erraz gainditzen zuen. Espainiaren kasuan, ehuneko % 40,7koa zen urte horretan. Bestalde, 20 eta 24 urte arteko gazteen % 85,5ek bigarren mailako ikasketak baino gehiago ditu gutxienez.

Informazio gehiago:

http://eu.eustat.es/ci_ci/estadisticas/tema_198/opt_1/tipo_1/ti_Euskadi_28-Ebn/temas.html#axzz3CLwgPVG1



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2014ko Uztaila-Abuztua

KOHESIO-POLITIKA

> Hiru Foru Aldundiek Euskadiri dagokion Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren banatzea adostu dute

Hiru foru-aldundiek akordio-printzipioa adostu dute Europako Nekazaritzako Politika Komuneko (NPK) Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (FEADER) bidez eskaintzen diren Europako funtsak banatzeko.

FEADER (Landa Garapenerako Europako Nekazaritzako Funtza) da landatar garapen iraunkorra babesten duen Nekazaritzako Politika Komunaren (NPK) finantza-tresna. Helburuak nekazaritzaren eta basogintzaren lehiakortasuna, eta ingurumena eta landatar bizitzaren kalitatea hobetzea, eta jarduera ekonomikoen dibertsifikazioa bultzatzea dira.

FEADER marko berriaren, landatar garapeneko politikak finantzatzen dituen Europako nekazaritza funtsaren, arazuko proposamena onartu ondoren, nekazaritzan eskuduntza duten Euskadiko administrazioek ekainean adostu dute akordio-printzipioa Euskadiko 2014-2020ko Landatar Garapen Iraunkorreko Programa zehazteko. Horren helburuak Europako funtsak banatzea eta jarduerak lehentasunezko neurrietan oinarritzea dira.

2014-2020 Landatar Garapeneko Programa da aldi horretan Euskadiko landatar ingurunean bultzatu beharreko jarduera eta neurrietarako Nekazaritzako Politika Komunaren finantza-laguntza egituratzen duen programa operatiboa. Landatar ingurunea osatzen duten eragile ugari (nekazariak, basogintzan lan egiten dutenak, kooperatibak, nekazaritzako industriak, udalak eta abar) laguntza emateko finantza-tresna da. FEADER funtsak eta euskal erakundeek (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak) aurrekontu-ekarpenek finantzatzen dute.

Informazio gehiago:

http://www.nasdap.ejgv.euskadi.net/r50-pdr2020/eu/contenidos/informacion/pdr2020_intro/eu_agripes/pdr2020_intro.html



> Europako Lurralde Lankidetzarako 2014ko Europako Eguna irailaren 21ean izango da

"Parteka ditzagun mugak, gertura gaitezen gero eta gehiago" lelopean, irailaren 21ean izango da Europako Lurralde Lankidetzarako Europako Eguna. Kanpainaren helburua mugaz gaindiko Europako lankidetzan izandako lorpenak herritarrei jakinaraztea da.

Europako Lurralde Lankidetzara Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren baitan dago eta haren helburua Europar Batasuneko eskualdeen artean mugaz gaindiko lankidetzara, transnazionala eta eskualde artekoa bultzatzea da komunitateko lurralde osoaren garapen harmoniatsua, orekatua eta iraunkorra lortzeko.

Helburu horrekin lotuta, lankidetzako esku-hartzeak hiru eratakoak izan daitezke: mugaz gaindikoak, transnazionalak edo eskualde artekoak.

Europako Lurralde Lankidetzarako Europako Eguna dela eta, Europako Lurralde Lankidetzako programa ugariak eta lotutako beste programa batzuek hainbat ekitaldi antolatu dute irailaren 21aren aurreko asterako eta egun horretarako.

Kanpaina INTERACT Programak koordinatu du eta Europako Batzordearen, Europako Parlamentuaren eta Eskualdeen Batzordearen laguntza jaso du.

Informazio gehiago:

<http://www.ecday.eu/>



> **Gazteen Berme Plana onartu dute**

Ministroen Batzordeak Gazteen Berme Plana abian jartzea onartu du. 2013ko apirilean Europar Batasunak gazteen langabeziaren aurkako borrokako onartutako komunitate-ekimena da.

Zehazki, Gazteen Bermea ezartzeari buruzko 2013ko apirilaren 22ko Europako Batzordearen Gomendioak honela definitzen du Bermea: 25 urte baino gutxiagoko gazte guztiek, langabezian geratu edo hezkuntza formala amaitu eta lau hilabeteko epean, lan-eskaintza, hezkuntza jarraitua, apendiz-prestakuntza edo praktiketarako aldia jasotzeko ardura beren gain hartzeko estatuei egindako gomendioa.

Gazteen Berme Planak, Errege Lege Dekretuak onartutakoak, lanik ez duten, hezkuntzako edo prestakuntzako sistemetan txertatuta ez dauden eta 16 urte baino gehiago eta 25 urte baino gutxiago dituzten gazteek, hezkuntza formala amaitzean edo langabezian geratzean lan-eskaintza, hezkuntza, apendiz-prestakuntza edo praktikak jasotzeko helburua du. Era berean, Gazte Bermearen Sistema Nazionaleko onuradunak kontratatzekeo pizgarriak gehitu ditu; zehazki, kontratazio mugagabearekin eta prestakuntza-kontratuekin lotutakoak.

Gazte Bermea Ezartzeko Planak Neurrien Katalogoa jasotzen du. Horiek guztiak Estatuko Administrazio Orokorrak eta komunitate autonomoek garatuko dituzte (bakoitzak bere eskuduntzen arabera). Proposatutako neurri nagusien artean, honako hauetara bideratutakoak azpimarratu behar ditugu: bitartekaritza hobetzea, enplegarritasuna hobetzea, kontratazioa babestea eta ekintzailtza bultzatzea.

Informazio gehiago:

<http://www.empleo.gob.es/es/garantiajuvenil/home.html>

<http://prensa.empleo.gob.es/WebPrensa/downloadFile.do?tipo=documento&id=2253&idContenido=1430>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Berrogeita hamar klusterrek baino gehiagok laguntzen du mugaz gaindiko proiektuetan Akitania-Euskadi Euroeskualdearen garapen ekonomikoa bultzatzen

Biharteanek (Mugaz gaindiko Merkataritzako eta Industriako Ganbera) eta Orkestrak (Deustuko Unibertsitateko Lehiakortasuneko Euskal Institutua) uztailaren hasieran egin zuten Akitaniako eta Euskadiko klusterren arteko Mugaz gaindiko Lehen Topaketa.

Egindako topaketara ehun eragile baino gehiago joan zen eta Akitania-Euskadiko mugaz gaindiko Interclustering-ari buruzko ikerketa-proiektuan sartuta dago. Ekimenak AECT Akitania-Euskadi Euroeskualdearen finantzaketa jaso du.

Topaketa Mikel Antonek, Eusko Jaurlaritzako Europako Gaietarako zuzendariak, eta Mathieu Berger-ek, Akitaniako eskualdeko kontseilariak, ireki zuten. Bertan, Juan Domingo Olabarrik, Enpresa Garapeneko Euskadiko Agentziako (SPRI) Ikerketako eta Klusterren arduradunak, Euskadik klusterren politikaren esparruan izandako esperientzia aurkeztu zuen. Bestalde, Amélie Demanet-ek, ADIren (Akitaniako Berrikuntzaren Garapenerako Agentzia) arduradunak, Akitaniako Interclustering estrategia aurkeztu zuen.

Esku-hartzeek proiektuaren testuingurua kokatzen lagundu zuten. Aurrerapenak Orkestrako Bart Kamp eta Usue Lorenz ikerlariek eta Bihartean-eko Olga Irastorzak aurkeztu zituzten.

Informazio gehiago:

<http://www.bihartean.com/secciones/actualidad/noticias/detalle-noticia.php?id=80&lang=eu>

<http://www.aquitaine-euskadi.eu/media/8392/Presentation-Orkestra-Bihartean--FR-.pdf>



> **Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Gipuzkoako Bazkundearen eta Garapenen arteko akordioak Gipuzkoako ETE-en nazioartekotzeari bultzakada emango dio**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Bazkondeak eta Gipuzkoako eskualdeko garapen-agentziek Gipuzkoako ETE-entzako 300 nazioartekotze-ekintza bultzatu dituzte 2014ko lehen seihilekoan.

Bultzatutako ekintzen barruan honako hauek daude: ikastaro presentzialak, lurraldeko enpresen nazioartekotze-egoeraren inguruko diagnostikoak prestatzea, herrialde jakinei buruzko jardunaldi tematikoak, sentsibilizazio-saioak eta gai espezifikoetarako buruzko laneko taldeak sortzea. Testuinguru horretan, bestalde, Argibide zerbitzua jarri dute abian. Gipuzkoako enpresen esku dago eta nazioarteko merkataritzari buruzko kontsulta-zerbitzua da. Gipuzkoako Foru Aldundiak babesten du eta horren helburua Gipuzkoako enpresen nazioartekotzea erraztea da.

Ekintza horiek guztiak 2014ko martxoan Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Bazkondeak eta eskualdeko garapen-agentziek sinatutako hitzarmenetik eratorritakoak dira. Bi urteko iraupena duen lankidetzeta-hitzarmenak Gipuzkoako enpresa txikien nazioartekotzea erraztea du xede.

Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero 715.000 euro bideratzen ditu hitzarmen horretara. Gipuzkoako Bazkondeak eta eskualdeko garapen-agentziek baterako ekintza horren zerbitzura jartzen dituzte haien teknikak, baliabideak eta egun kudeatzen dituzten programak.

Informazio gehiago:

http://www.camaragipuzkoa.com/attachments/article/274/NaziotekotzekoEkintzaPlana_P.OHARRA.pdf



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> **Elkarteen sorrera (Panorama aldizkaria. Eskualdeko eta Hiriko Politikako Zuzendaritza Nagusia)**

Europako Batzordearen Eskualde eta Hiriko Zuzendaritza Nagusiak hilero argitaratzen duen Panorama aldizkariako udako aleak (49. alea) Europako Kohesio Politikako Elkartze Akordioak onartzeko prozesuan gertatu diren aurrerapenei buruzko datu eguneratuak eskaintzen ditu. Zehazki, onartutako lehen akordioan oinarritu dute azterketa: Danimarkakoa.

Era berean, Batasuna handitu zenetik igaro diren hamar urte hauen inguruko balantzea jasotzen du, 2004. urtetik Europar Batasunean sartu diren estatuek egin dituzten aurrerapenen laburpenarekin eta Kohesio Politikak eskaini dizkien onurekin.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag49/mag49_en.pdf

> **2014-2020 Europako proiektuen kudeaketa-eskuliburua udaletarako (Bizkaiko Foru Aldundia)**

Bizkaiko Lurralde Historikoko udaletarako Europako proiektuen kudeaketa-eskuliburuaren xedea besteak beste Europako finantzaketari esker proiektuaren garapena erraztea da. Izan ere, ez dago tokiko administrazioen zehaztasunak kontuan dituen gai horri buruzko bibliografia espezifikorik.

Gidak erreferentziako gaiak eta proiektu transnazional baten diseinu eta kudeaketa egokia egiteko gakoak diren fase guztiak ezagutzeko aukera ematen du.

Informazio gehiago:

http://bizkaia.net/home2/bizkaimedia/Contenido_Noticia.asp?TNo_Codigo=0&Not_Codigo=13550&idioma=C&A&bnetmobile=0&dpto_biz=4&codpath_biz=4|290



> **Investment for Jobs and growth. Promoting development and good governance in EU regions and cities (Europako Batzordea)**

Ekonomia, gizarte eta lurralde mailako kohesioari buruzko Europako Batzordearen seigarren txosten horrek agerian utzi du EBko kohesio-politika 2020ko Europako Estrategiaren hazkunde-helburuak lortzen ari dela honako hauen bidez: lanpostuak sortuta eta Europa osoan desberdintasunak gutxituta.

Etorkizunera begira, 2014-2020rako, inbertsioak oinarrizko gaietan oinarrizko direla erakusten du txostenak: energia-eragingarritasuna, enplegua, gizarteratzea eta ETEak. Horren helburua herritarren mesedetan inbertsioei ahalik eta etekin handiena ateratzea litzateke.

Argitalpenaren ondorio nagusia honako hau da: kohesio-politikak arindu egin du inbertsio publikoek jasandako jaitziera handia. Horretarako, kide diren estatu ugaritan oso beharrezkoak diren inbertsio-baliabideak txertatu eta ezinbestekoa den finantza arloko egonkortasuna sortu dute eta horiek baliagarriak dira inbertsio pribatua erakartzeko.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/official/reports/cohesion6/6cr_en.pdf